

ENTZUNALDIA

2022ko irailaren 28an Udalak egindako Osoko Bilkuran, akordio hau hartu zuen:

---“2. IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO ETA ATERATZEKO ETA EREMU PUBLIKOA IBILGAILUEN APARKALEKU ESKLUSIBORAKO ETA EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANETARAKO ERRESERBATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta ateratzeko eta eremu publikoa ibilgailuen aparkaleku eskusiborako eta edozein motatako salgaien zamalanetarako erreserbatzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala aldatzeko espedientea. Bertan jasotzen da aldaketa-proposamena (xedapen iragankor bakarra gehitu).

- Idazkariak 2022ko irailaren 26an egindako txostena.

- Gai baten alderdi partzialen arauketa izanik, egin gabe utz daitekeela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 133.1 artikulua arautzen duen aurretiko kontsulta publikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluek eta 39/2015 Legeko 133.2 artikulua xedatzen dutenarekin bat eginik,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasiera batez onestea ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta ateratzeko eta eremu publikoa ibilgailuen aparkaleku eskusiborako eta edozein motatako salgaien zamalanetarako erreserbatzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren aldaketa.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, alde aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean iragarkia jarrita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek hura aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak egin ahal ditzaten.

3. Udal webgunean argitaratzea aldaketaren testua 30 egunez, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketan ekarpen gehigarriak jasotzeko.

4. Ohartaraztea ez bada erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten, hasierako onspen hau behin betikoa bilakatuko dela eta aldaketaren testua NAOn argitaratuko dela.”---

39/2015 Legearen 133.2 artikuluari jarraikiz, ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta ateratzeko eta eremu publikoa ibilgailuen aparkaleku eskusiborako eta edozein motatako salgaien zamalanetarako erreserbatzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren aldaketaren testua argitaratzen da udal webgunean ukitutako herritarrei

entzualdia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko:

ALDAKETA.

Gehitu xedapen iragankor bakarra:

Ordenantza honen tarifen eranskinaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoan %50eko murrizketa aplikatuko da, eta murrizketa hori indarrean egonen da Berako Udalak ibilgailuak bide publikotik kentzeko eta zaintzeko zerbitzurik ez duen bitartean.

Entzualdia 30 egun balioudunekoa izanen da, eta epe horretan egokitzat jotzen diren ekarpenak egin ahal izanen dira helbide elektroniko honetan: bera@bera.eus. Gaia: pasabideen ordenantza fiskalaren aldaketa.

Bera, 2022ko urriaren 18a.

ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.